Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4400

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 15ekoa, Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, emandako diru-laguntzari Deustu Fundazioak egindako ukoa onartzeko dena eta diru-laguntzaren ordainketa ezeztatzeko dena. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ikerketa-lanak egin eta argitaratzeko proiektuak edo ekintza pilotuak egiteko diru-laguntzen 2009ko deialdiaren barruan eman zitzaion diru-laguntza.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2009ko apirilaren 30eko Ebazpenaren bidez, Deustu Fundazioari 11.809,28 euroko diru-laguntza eman zitzaion, «La situación socioeconómica de las mujeres inmigrantes como cuidadoras informales de la CAE» izeneko proiektua egiteko.

2009ko ekainaren 15ean, diru-laguntzaren erakunde onuradunak laguntzari uko egin diola jakinarazi dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari.

Horrenbestez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Deustu Fundazioari emandako diru-laguntzaren ukoa onartzea eta diru-laguntzaren ordainketa ezeztatzea. 11.809,28 euro eman zitzaion «La situación socioeconómica de las mujeres inmigrantes como cuidadoras informales de la CAE» izeneko proiektua egiteko.

Bigarrena.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Horren aurka interesatuek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 15a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

4400

RESOLUCIÓN de 15 de junio de 2009, de la Directora de Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer, por la que se acepta la renuncia de la subvención concedida a la Fundación Deusto dentro de la convocatoria de subvenciones a proyectos de publicación y a la realización de trabajos de investigación o acciones piloto en materia de igualdad de mujeres y hombres para el año 2009, y se cancela el pago de la misma.

Por Resolución de 30 de abril de 2009, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer se concedió a la Fundación Deusto una subvención de 11.809,28 euros para la realización del proyecto «La situación socioeconómica de las mujeres inmigrantes como cuidadoras informales de la CAE».

La entidad beneficiaria de la subvención ha comunicado con fecha 15 de junio de 2009 a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer su renuncia a la ayuda.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia de la subvención concedida a la Fundación Deusto por importe de 11.809,28 euros para la realización del proyecto «La situación socioeconómica de las mujeres inmigrantes como cuidadoras informales de la CAE», y cancelar el pago de la misma.

Segundo.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de junio de 2009.

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.